



## Aurretiazko genero eraginaren txostena

**Foru Dekretua Persona Fisikoen  
Errentaren gaineko Zergaren eta  
Sozietateen gaineko Zergaren  
Erregelamenduak aldatzen  
dituena**

## Informe de evaluación previa de impacto de genero

**Decreto Foral por el que se  
modifican los Reglamentos del  
Impuesto sobre la Renta de las  
Personas Físicas y del Impuesto  
sobre Sociedades**

### 1. Sarrera

Txosten honen helburua da 2/2015 Foru Arauak, martxoaren 9koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoak, bere 27. artikuluan ezartzen duena betetzea. Hain zuzen ere, Gipuzkoako Foru Aldundiaren foru arauen aurreproiektuak zein izaera orokorreko xedapen proiektuak osatu eta izapide-tzeko orduan, generoaren eraginaren aldez aurreko ebaluazioa aurkeztu beharko da haiei atxikita.

### 1. Introducción

Este informe tiene como objetivo dar cumplimiento a lo establecido el artículo 27 de la Norma Foral 2/2015, de 9 de marzo, para la igualdad de mujeres y hombres. Según el mismo, los anteproyectos de Norma Foral y los proyectos de disposiciones de carácter general de la Diputación Foral de Gipuzkoa, en su proceso de elaboración y tramitación, se acompañarán del correspondiente informe de evaluación previa de impacto de género.

Genero eraginaren aldez aurretiko ebaluazio txostenak atal hauek eduki

Ese informe de evaluación previa del impacto en función del género



beharko ditu:

- arau proiektuaren edo izaera orokorreko xedapenaren deskribapen orokorra.
- genero eraginaren aldez aurreko ebaluazioa.
- atzemandako ezberdintasunak ezabatzeko neurriak, baita, egindako genero eraginaren ebaluazioaren arabera, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko neurriak ere.

deberá de constar de las siguientes partes:

- la descripción general del proyecto de norma o de disposición de carácter general.
- la evaluación previa del impacto en función del género.
- las medidas para eliminar las desigualdades identificadas y promover la igualdad de mujeres y hombres en función de la evaluación de impacto de género realizada

## 2. Arau aldaketak

Proposatzen den prozeduraren xedea da foru dekretu bat onartzea bi erregelamendu hauek aldatzeko: batetik, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua, urriaren 14ko 33/2014 Foru Dekretuaren bidez onartua, eta, bestetik, Sozietaeten gaineko Zergaren Erregelamendua, urriaren 14ko 33/2014 Foru Dekretuaren bidez onartua.

## 2. Modificaciones normativas

El procedimiento propuesto tiene por objeto aprobar un decreto foral que modifique los Reglamentos del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, aprobado por el Decreto Foral 33/2014, de 14 de octubre, y del Impuesto sobre Sociedades, aprobado por el Decreto Foral 17/2015, de 16 de junio.



**Pertsona Fisikoaren Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduan** hainbat aldaketa sartu nahi dira, besteak beste, honakoak:

- Gehitu egiten dira langileak trebatu edo birziklatzera bideratutako ikasketa gastuen barruan –gauzazko ordainsari ez direnen barruan–, baita ere, emplegu-emaileaz besteko pertsona edo entitateek finantzatutako gastuak, baldin eta pertsona edo entitate horiek merkaturatzen dituzten produktuetarako beharrezko bada langileak prestakuntza egokia izatea.
  
- Mendekotasun egoeran dagoen pertsona batek edo modu frogatuan larriki gaixotutako batek bere ohiko bizilekua utzi behar badu senideen etxearen edo egoitza zentroetan artatua izateko, bizileku horrek ez du ohiko etxebizitza izaera galduko, kostu bidezko eskualdaketagatik lortutako ondare irabaziak salbuetsita uzterako orduna, baldin eta, etxebizitza horretan esandako arrazoiengatik bizi ez den denboran etxebizitza horrek beste erabilpenik

En el **Reglamento del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas** se prevé incluir diversas modificaciones, entre otras, las siguientes:

- Se añaden a los gastos de estudio para la capacitación o reciclaje del personal que no constituyen retribución en especie, aquellos que son financiados por otras personas o entidades distintas de la empleadora, siempre que estas comercialicen productos para los que resulte necesario disponer de una adecuada formación por parte de la persona trabajadora.
  
- Cuando una persona en situación de dependencia o enfermedad grave acreditada se vea obligada a trasladarse de su residencia habitual para ser atendida en el domicilio de sus familiares o en centros residenciales, dicha residencia no perderá el carácter de vivienda habitual, a efectos de aplicar la exención por las ganancias patrimoniales obtenidas por la transmisión onerosa de la misma, siempre y

izan ez badu.

cuando durante el periodo que por las razones expuestas no resida en la misma no haya sido objeto de utilización distinta.

- Harpidetza eskubideen eskualdaketetan aplicatzen den atxikipenaren edo konturako sarreraren erregulazioa doitu egiten da, kontuan hartuta Estatuak gai horretan onartutako arauadiarekin, eta Ekonomia Itunean ezarritakoa beteko bada, beharrezkoa dela aldaketa horiek Gipuzkoako Lurralde Historikoan ere onartzea.
- Se ajusta la regulación de la retención e ingreso a cuenta en el caso de transmisión de derechos de suscripción, de acuerdo con la regulación que el Estado ha aprobado en esta materia, y que por aplicación del Concierto Económico, es necesario aprobar también en el Territorio Histórico de Gipuzkoa.
- Aldatu egiten dira negoziazeko onartu gabeko baloreen kasuan, kapital murriztapenak ekarpenak itzuliz egiteagatik edo jaulkipen prima banatzeagatik entitateei dagozkien informazio obligazio formalak.
- Se modifican las obligaciones formales de información relativas a las entidades que lleven a cabo operaciones de reducción de capital con devolución de aportaciones o de distribución de prima de emisión, correspondiente a valores no admitidos a negociación.
- Aldatu egiten da jarduera ekonomikoen ordainketa zatikatuak egiteko modu bereziei buruzko
- Se modifica la regulación relativa a las formas especiales de realización de los pagos



erregulazioa.

**Sozietateen gaineko zergaren erregelamenduan** hainbat aldaketa sartu nahi dira:

- ikerkuntza, garapena eta berrikuntza teknologikoaren jardueren kenkariak egiazatzeko kontuetan.
- atxikipenen kontuetan, Estatuak materia horretan onartutako araudia kontuan hartuta, eta Ekonomia Itunak agindutakoaren indarrez, aldaketa horiek Gipuzkoako Lurralde Historikoan onartzea beharrezkoa delako.

fraccionados de actividades económicas.

En el **Reglamento del Impuesto sobre Sociedades** se prevé incluir varias modificaciones:

- en materia de acreditación de las deducciones por actividades de investigación, desarrollo e innovación tecnológica.
- en materia de retenciones, de acuerdo con la regulación que el Estado ha aprobado en esta materia, y que por aplicación del Concierto Económico, es necesario aprobar también en el Territorio Histórico de Gipuzkoa.

### 3. Genero eragina

#### 3.1 Genero egokitasuna

Proiektu honen helburua da bi erregelamendu hauen hainbat alderdi aldatzea: batetik, Pertsona Fisikoen

### 3. Impacto de género

#### 3.1 Pertinencia de género

Este proyecto tiene como objetivo modificar diversos aspectos de los Reglamentos del Impuesto sobre la



Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua, urriaren 14ko 33/2014 Foru Dekretuaren bidez onartua, eta, bestetik, Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamendua, urriaren 14ko 33/2014 Foru Dekretuaren bidez onartua.

Renta de las Personas Físicas, aprobado por el Decreto Foral 33/2014, de 14 de octubre, y del Impuesto sobre Sociedades, aprobado por el Decreto Foral 17/2015, de 16 de junio.

Hortaz:

- amaierako talde hartzalearen barruan pertsona fisikoak daude.
- xedapen normatiboak eragina duela emakumeek eta gizonek baliabideak eskuratzeko edota kontrolatzeko moduan.

Por tanto:

- dentro del grupo destinatario final están las personas físicas.
- la disposición normativa afecta al acceso y/o control de los recursos por parte de las mujeres y los hombres.

Beraz, ondorioztatu behar da egokia dela arau proiektua genero ikuspegitik aztertzea.

Por tanto, se determina que es pertinente el análisis de género del proyecto normativo.

### **3.2. Genero eraginaren balorazioa**

#### **3.2.1. Hasierako egoera**

EUSTATek egiten duen "Errenta

### **3.2 Valoración del impacto de género**

#### **3.2.1 Situación inicial**

Según los datos de la "Renta personal



personal eta familiarra"-ren datuen arabera, 2015ean Gipuzkoako emakumeen batez besteko errenta 15.852 eurokoa izan zen, eta gizonzkoena, berriz, 25.802 eurokoa (%38,6ko arraila). Laneko errentetan aldea edo desberdintasuna %40,4koa da (9.113 euro eta 15.302 euro, hurrenez hurren, emakumeen enplegua eskuratzeko aukera murritzagoak eta lan diskriminazioa direla medio). Gipuzkoan emakumeen %24,2ak 1.500 eurotik behera jasotzen ditu, eta gizonzkoetan talde hori % 13,6koa da. Emakumeen erdia baino gehiagok (%51,3) urtean 12.000 eurotik behera jasotzen dituen taldean kontzentratzen da, sarrera horiek dituzten gizonzkoak %28,6 diren bitartean.

Lan merkatuari dagokionez, nahiz eta gizonzkoen langabezia zifrak gora egitearen ondorioz langabeziako tasetan genero arraila murriztu egin den, krisi ekonomikoaren eraginez langabeziak gehiago erasaten die oraindik ere emakumeei gizonzkoei baino. Horrela, eta EUSTATen Biztanleria Jardueraren Araberako datuetan ikusten da 2017an Euskal Autonomia Erkidegoko emakumeen (16-64 urte)

y familiar" que elabora el EUSTAT, en 2015 la renta media de las mujeres en Gipuzkoa fue de 15.852 euros y la de los hombres de 25.802 euros (brecha del 38,6%). En las rentas procedentes del trabajo la diferencia es del 40,4% (9.113 euros frente a 15.302, dado el menor acceso al empleo y la discriminación laboral). El 24,2% de las mujeres de Gipuzkoa percibía unos ingresos inferiores a 1.500 euros al año, frente al 13,6% de los hombres. Más de la mitad (51,3%) de las mujeres se concentra en ingresos inferiores a 12.000 euros anuales frente al 28,6% de los hombres.

En lo referente al mercado de trabajo, a pesar de que la brecha de género en las tasas de paro se ha reducido como resultado del aumento del desempleo en los hombres, a consecuencia de la crisis económica, el paro sigue afectando más a las mujeres que a los hombres. Así, y según los datos para la Comunidad Autónoma de Euskadi de la Encuesta de la Población en

okupazio tasa %63,1ekoa izan zela, gizonezkoena %69,9koa izan zen bitartean. Eta langabezia egoeran dagoen biztanleriari dagokionez, Gipuzkoako emakumeen langabezia tasa 2017an %9,7koa izan zen, gizonena %8,2a izan zen bitartean.

Relación con la Actividad de EUSTAT, en 2017 la tasa de ocupación de las mujeres (16-64 años) fue del 63,1% frente al 69,9% de los hombres. Respecto a la población en situación de desempleo, la tasa de paro en Gipuzkoa para las mujeres en 2017 fue del 9,7% frente al 8,2% de los hombres.

Era berean, emakumeak dira nagusi Diru-sarrerak Bermatzeko Errentan (SBE) titularrak direnen artean. Horrela, eta Lanbideko 2017ko datuen arabera, SBEa jasotzen duten pertsonen %55,8 emakumeak dira Gipuzkoan.

Del mismo modo, las mujeres son mayoría en el colectivo de personas titulares de la Renta de Garantía de Ingresos (RGI). Así, y según los datos de Lanbide, en 2017 el 55,8% de las personas receptoras de la RGI en Gipuzkoa son mujeres.

Nabarmenzeko modukoa da pobreza indizeak handiagoak direla emakumea pertsona nagusia den etxeetan. Horrela, "Gipuzkoako pobreziaren eta bazterkeriaren inuesta, 2014" argitalpenaren arabera, pobreza eta prekariatatea tradizioz arriskukoak diren taldeetan pilatzen dira gero eta gehiago. Bide horretatik, pobreza modu desberdinek sexuaren arabera duten intzidentziaren konparaziozko azterketak egoera okerragoa erakusten du kasu guztietañ emakumeak buru

Cabe destacar, que los índices de pobreza son superiores en los hogares cuya persona principal es una mujer. Según la "Encuesta de pobreza y exclusión social de Gipuzkoa 2014" la pobreza y la precariedad se concentran cada vez más en los grupos tradicionalmente de riesgo. Así, el análisis de la incidencia de las distintas formas de pobreza en función del sexo revela en todos los casos la peor situación comparada de los hogares encabezados por



dituzten etxeetan. Horrela, pobreza iraunkorren maila bereziki altua da emakumezkoak daramatzaten etxeetan bizi direnen kasuan (%12,8), gizonezkoen daramatzaten %7,8ren aldean.

Pobreza eta bazterketa arriskua neurtzen duen AROPE tasaren arabera (diru-sarrera apalak, eskasia material larria eta lan intentsitate apala) emakumezkoen %21,5a dago egoera horietako bat jota egoteko arriskuan, gizonezkoen %17,5aren aldean. Eta emakumezkoak buru dituzten etxeetan, bertan bizi diren %29,4k dute arrisku hori, gizonezkoak buru direnean portzentaje hori %16,6ra jaisten den bitartean.

mujeres. Así, la tasa de pobreza persistente es particularmente elevada entre las personas que viven en hogares encabezados por mujeres (12,8%), frente al 7,8% en hogares encabezados por hombres.

Según la tasa AROPE de riesgo de pobreza y exclusión social (bajos ingresos, privación material severa y baja intensidad laboral) el 21,5% de las mujeres está en situación de sufrir al menos una de esas situaciones, frente al 17,5% de los hombres. Y cuando la persona principal del hogar es una mujer, el 29,4% de los integrantes del hogar pueden estar en esa situación, mientras que si la persona principal es un hombre el porcentaje baja al 16,6%.

Langileak trebatu edo birziklatzera bideratutako ikasketei buruz, duela gutxiko txosten<sup>1</sup> batek, besteak bete, zera ondorioztatu du:

- Enpresek gizonezkoen formakuntza emakumezkoena baino neurri handiagoan finantzatzen dute.

En referencia a los gastos de estudio para la capacitación o reciclaje del personal, un reciente informe<sup>1</sup> concluye, entre otros aspectos, que:

- Las empresas financian la formación de los hombres en mayor medida que la de las

<sup>1</sup> Características de la participación femenina en la formación a lo largo de la vida - 13 DATOS QUE EXPLICAN LA PARTICIPACIÓN DE LAS MUJERES EN FORMACIÓN PARA EL EMPLEO. Revista Nueva Tribuna marzo de 2018



- Lan merkatuan emakumezkoak izan duten hazkundeak ez du ekarri enpleguaren prestakuntzarako partaidetzaren hazkundea.
- Espainiako emakumezkoen partaidetza bizitza osoan zeharreko prestakuntzan Europako batez bestekoa baino %25 txikiagoa da.
- Ordutegiekin bateraezintasuna eta familiaz arduratzeko beharra dira emakumezkoak bizitza osoan zeharreko prestakuntzan parte-hartzeko oztopo nagusiak.

Mendetasuneko egoeran dauden pertsonei dagokionez, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuaren 2017ko datuen arabera, emakumezkoek kopuru osoaren %69,9a dira. Emakumezkoek bizi-itxaropen handiagoa dutenez, gaixotasun eta desgaitasun gehiago jasaten dituzte, eta horren ondorioa da mendekotasun maila handiagoa izatea.

mujeres.

- El aumento de mujeres en el mercado de trabajo no ha supuesto un aumento en las participantes en formación para el empleo.
- La participación de las mujeres españolas en formación a lo largo de la vida es inferior en un 25% a la media europea.
- La incompatibilidad con los horarios de trabajo y la necesidad de atender a la familia son los principales obstáculos para la participación de las mujeres en formación a lo largo de la vida.

Respecto al número de personas en situación de dependencia, los datos del 2017 del Departamento de Políticas Sociales de la Diputación Foral de Gipuzkoa señalan que las mujeres representan el 69,9% del total. Una mayor esperanza de vida por parte de las mujeres hace que soporten más enfermedades y discapacidades, lo que trae consigo un mayor grado de dependencia.



## 2017an Aldundiaren zerbitzu nagusietan artatutako pertsonak Población atendida en los principales servicios forales en 2017

	Gizonak / Hombres (%)	Emakumeak / Mujeres (%)	Guztira / Total (kop./núm)
Mendetasunean dauden pertsonak / Personas dependientes	30,1	69,9	22.095
Egoitzak / Residencias	29,0	71,0	5.015
Etxez etxeko laguntza / Ayuda a Domicilio	26,0	74,0	2.421
Eguneko zentroak / Centros de día	29,0	71,0	1.797
Unitate sozio-sanitarioak / Unidades socio-sanitarias	56,4	43,6	202
Aldi baterako egonaldiak / Estancias temporales	27,1	72,9	424
<b>Artatutako pertsonak guztira / Total de personas atendidas (*)</b>	<b>28,9</b>	<b>71,1</b>	<b>8.981</b>

(\*) Pertsona ezberdinak / personas distintas

### 3.2.2 Proposatutako neurrien eragina

Gauazko ordainsari bezala ez hartzea langileak trebatu edo birziklatzera bideratutako ikasketa gastuak emplegu-emaileaz besteko pertsona edo entitateek finantzatutakoan, erraztu egingo dio langile guziei ikasketa horietan parte-hartza. Beraz, eta hasiera batean, eragin dezake pertsona gehiagok parte-hartza empleguaren prestakuntzako ikastaroetan.

### 3.2.2 Efectos de las modificaciones propuestas

La no consideración como retribución en especie de los gastos de estudio para la capacitación o reciclaje del personal que son financiados por otras personas o entidades distintas de la empleadora, facilitará el acceso a las mismas por parte de todas las personas trabajadoras. Por tanto, y en principio, podría provocar que un



Ohiko bizileku batek ohiko etxebizitza izaera ez du galduko mendekotasun edo gaixotasun larriko egoera batzuk ematen direnean. Ondorioz, egoera horretan dauden pertsonak errazago joango dira senideen etxeetara edo egoitza zentroetan artatuak izatera.

Proiektu honetan propositutako beste neurri batzuk izaera teknikokoak dira (doiketak atxikipenetan, informazio hornikuntza, kenkarien egiaztapena...) eta beren helburua da antolamendu juridikoari araugintzako zehaztasun handiagoa ematea, betiere zerga arloko jarduketei eraginkortasun handia eskaintze aldera eta, azken finean, zerga sistema orokorrak hobeto funtzionatze aldera.

mayor número de personas participe en cursos de formación para el empleo.

Una residencia habitual no perderá el carácter de vivienda habitual cuando se den ciertas situaciones de dependencia o enfermedad grave. En consecuencia, las personas en esa situación se trasladaran con mayor facilidad para ser atendidas en el domicilio de sus familiares o en centros residenciales.

Otras de las modificaciones propuestas en este proyecto son de carácter técnico (ajustes en las retenciones, suministro de información, acreditación de deducciones...) y su objetivo es dotar al ordenamiento jurídico de una mayor precisión normativa, que provocará una mayor eficacia de las actuaciones tributarias, que al final repercutirán en un mejor funcionamiento del sistema tributario en general.



### 3.2.3 Genero eraginaren balorazioa

Emakumezkoen parte-hartza langileak trebatzeko edo birziklatzeko ikastaroetan, gizonezkoena baino txikiagoa da. Ikastaro mota horien sarbidea bultzatzen dituzten neurri guztiak, esaterako gauzazko ordainsari bezala ez hartza, emakumezkoen parte-hartza bultzatu dezakete. Nahiz eta garbi geratu den, ordutegiekin bateraezintasuna eta familiaz arduratzeko beharra direla emakumezkoak bizitza osoan zeharreko prestakuntzan parte-hartzeko oztopo nagusiak. Eta gai horiek dira indar gehiagorekin eragin beharko liratekeenak.

### 3.2.3 Valoración del impacto de género

La participación de las mujeres en cursos de capacitación o reciclaje del personal es inferior a la de los hombres. Todo tipo de medidas que faciliten el acceso a ese tipo de cursos, como la no consideración de los mismos como retribución en especie, podrían provocar un aumento de la participación de las mujeres. Si bien queda claro que los principales obstáculos para la participación de las mujeres en cursos de formación es la incompatibilidad con los horarios de trabajo y la necesidad de atender a la familia. Aspectos sobre los que habría que incidir con mayor fuerza.

Emakumezkoek bizi itxaropen handiago dutenez, gaixotasun eta desgaitasun gehiago jasaten dituzte; eta horrek mendekotasun maila handiagoa dakar. Mendekotasuna duten pertsonentzat ohiko bizilekuak ohiko etxebizitza izaera mantenduta lortzen dena da, mendekotasuna duten pertsonak gehiago eta hobeto artatuak izatea,

La mayor esperanza de vida por parte de las mujeres hace que soporten más enfermedades y discapacidades, lo que trae consigo un mayor grado de dependencia. Medidas como mantener el carácter de vivienda habitual para la residencia habitual de personas dependientes, provocará una mayor



eta ondorioz beraien bizi kalitatea hobetuko da.

Azkenik, eta hizkuntzaren erabilera sexistari dagokionez, proiektuaren terminoak egokitut dira. Halere, eta segurtasun juridikoa dela-eta, badira termino batzuk aldatu ez direnak, Ekonomi Ituanren 3. artikuluak ezarritako harmonizazio arauak direla-eta, Zergei buruzko Lege Orokorrak ezarritako terminologia eta kontzeptu berean errespetatu behar direnak.

y mejor atención de las personas dependientes, por lo que mejorará su calidad de vida.

Finalmente y respecto al uso sexista del lenguaje, se ha procedido a adaptar los términos del proyecto, si bien, y por seguridad jurídica, no se han modificado aquellos términos que por las reglas de armonización establecidas en el artículo 3 del Concierto Económico, deben respetarse en la misma terminología y conceptos que los establecidos en la Ley General Tributaria.

Donostia, 2018ko apirilaren 12

San Sebastián, a 12 de abril de 2018

**Sin/Fir.: José Antonio Lapeira Oyarzabal  
AZTERLANETAKO ATALBURUA / JEFE SECCIÓN DE ESTUDIOS**